

Espantua



UXUE APAOLAZA LARREA

Ez du irabaziko, erotuta dago, esaten ari dena ez da posible. Edonork ikusten du ez dagoela estatu bat gobernatzeko prestatuta. Teoriko bat da, ez dauka errealitatearen kontzientziarik. Feminismoak emandako pausoak atzerazinak dira, herritarrek ez dute onartuko zenbait eskubide zalantzan jartzea. Ezkertiarrenek eta demokrazian sinesten dutenek Massari emango diote botoa, gustatu edo ez, Mileik ez irabazteko. Eskuindarrak ere ez dira fidatzen berarekin.

Irabazi egin zuen. Eskuindarrek, fidatu edo ez, nahi izan zutelako, eman zizkiotelako behar zituen botoak, eman ziotelako behar zuen azpiegitura estatu bat gobernatzeko gai ez zena izan zedin.

Boterera iritsita ere ez du esandakoa egingo. Ezinezkoa da. Ezkertiarrenei gertatzen zaiena gertatuko zaio, programan daramaten hori ezinezkoa izaten da osorik aplikatzea, kontrabotereak daude, botere oso ondo ezarriak daude. Eta zer. Ez du dolarizatuko? Eta zer. Noski egingo duela esandakoa. Desegino du estatua, utziko du indarkeriarako bakarrik. Desegino du Argentina bera, zatika salduko du traidoreek saltzen duten eran. Kenduko dizkiete, noski, eskubideak emakumeei. Feministaren batek iragarri du Argentinatik ihes egingo duela, jazarpena ezin jasan. Ikusi ditugu bozgorailuetatik leku publikoetan mehatxu mezuak.

Graboisek botoa eskatu zuen maitasunagatik ez bazen, espantuagatik. Mileik irabazi zuen. Espantuak irabazi zuen. Barrea erraz izozten da, eroa baino tontoagoa bada. ●



MOTZEAN

► **"Trantsizio berdearen fartsa"** salatu du Euskal Herria Bizirik sareak, Gasteizen egin duen aurkezpenean. Hamalau kolektibok eta norbanako gisa batu diren beste hainbat kidek osatzen dute sarea, eta Lurraren defentsan batu dira, "natura eta landa-ingurunea suntsitzen dituzten makroproiektu andanaren inposaketari aurre egiteko".

► Lemoako Bistibieta zabortegean egon liteke "Prestige" hondamendian euskal kostaldean bildutako galipotaren %37. Eusko Jaurlaritzak ukatu egin du ekologistek sarri salatutakoa, baina emandako datu kontraesankorrek susmoak areagotu dituzte.

► Euskarari "puntu gehiegi" ematea leporatuta, epaileak bertan behera utzi du 181 lanpostu publikoren eskaintza.

► Maite Idirin Solatxi abeslaria hil da. Euskal kantagintza berrian, feminismoan eta euskara arloetan ezagun, ohorezko euskaltzain izendatu zuten 2014an.

► Presoen eskubideen aldeko manifestazioan parte hartu zuen, beste urte batez, Itziar Ituño aktoreak. Eskuin muturreko eragileek bere aurkako kanpaina abiatu zuten.